



Euskaraz kantatzea gustuko dugu

Josu Berra, Kantujiraren zuzendaria
Lau Haizetara Euskaldunon Elkarte

2012ko martxoaren 10eko kantujirako partaide batzuk gozatzen. Argazkia: Lau Haizetara Elkarte.

Euskal Herrian kalean, tabernan, etxeko mahaiaren bueltan, kantatzeko aspaldiko ohitura ezaguna da, baina poliki-poliki galduz joan da.

Errenterian kantuekiko kultura zabala da, abesbatzak (Andra Mari, Landarbaso, Oinarriak...), Musikaste, Gabon kanten lehiaketa, eta abar. Horietan guztietan, aldeztatik ongi ikasitako kantak eta polifonia lantzen dira eta emanaldiak areto itxietan gauzatzen dira.

Besteetan, herriko ohiturak jarraituz, kalean abestuz, edonork parte hartzeko moduko saioak egiten dira: Gabon kantak, Santa Ageda, Urte zaharreko koplak. Horietan ez da solfeo eta antzekorik behar, belarri ona edukitzea eta kantatzea gustuko izatea nahikoak dira une goxo bat bizitzeko.

Aurreko saio horiek aspaldikoak badira ere, badago gure herrian Lau Haizetara Euskaldunon Elkarteak antolatzen duen, eta Errenteriako Udal Kultura saila babesten duen, beste ekimen berri bat: Kantujira.

Honetan, nahi duen guztiak, hileroko bigarren larunbatean, eguerdiko 12:00etan, Herriko enparantzaz azaldu eta bertan doan banatzen diren karpeta batekin, kantatzen hasi eta ordu eta erdiko saioa osatzen da, ibilbide finko bat jarraituz: Udaletxeko arkupeak, Biteri txiki kalea, Xabier

Olaskoaga plaza, Xenpelar etxea eta bukatzeko, berriro Herriko Enparantza.

Ekimen hau, 2007ko urtarrilean jarri zen martxan, eta hileroko (uztaileko eta abuztuko oporrak kenduta), huts egin gabe, gaur arte gauzatu da. Bere helburuak xumeak bezain erakargarriak dira: kantatzeko zaletasuna zabaltzea, euskararen kaleko erabilera eta presentzia areagotzea, lagun berriak egitea, eta bereziki, ondo pasatzea.

Urtero, hobetu nahian, aldaketa berriak izaten dira, eta martxoko eta azaroko saioetan Udal Txistu taldearekin batera ateratzen gara. Urtarriko saioa hasi aurretik hamaiketako bikaina izaten dugu Gure Toki elkartearen (Regino Amurizari esker) eta ekaineko saioa bukatu ondoren, lagun arteko bazkaria Alkartasuna elkartearen (Ritxar Maritxalarri esker).

Kalean zehar, toki batetik bestera egiten dugun ibilbidean herriko trikitilari talde batek kantatzera animatzen garen 90 pertsona inguruko taldea alaitzen du.

Beraz, euskaraz kantatzera animatzen bazara, badakizu non gauden.

Ongi etorri!!